

**IRAGARKIA**

**GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA – GUFÉ.**

**GUFÉko Kontratazio Mahaiaren osaeraren aldaketa; Erregelamenduaren 12. artikulua.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzak 2018ko apirilaren 13an eginiko bilera arruntean, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«**Lehenengoa**.- GUFÉren kontratazioari buruzko erregelamenduaren 12. artikulua, Kontratazio Mahaiaren osaerari buruzkoa, aldatzea. Honela idatzita geratuko da:

*"12. artikulua.- Erakundearen Kontratazio Mahaiak osaera hau izango du:*

– *Mahaiburu titularra: Zerbitzu Orokorren Departamentuko burua.*

*Ordezkoa: Desgaitasuna duten Pertsonentzako eta Gizarteratzeko Zerbitzuen Dibisioko burua.*

– *Zerbitzu Soziosanitarioen eta Adinekoentzako Zerbitzuen Dibisioko burua.*

*Ordezkoa: Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko burua.*

– *Aholkularitza juridikoa ematea dagokion mahaikide titularra: Zerbitzu Orokorren Departamentuko Zuzenbideko lizentziaduna.*

*Ordezkoa: Zerbitzu Orokorren Departamentuko ekonomialaria.*

– *Idazkari titularra: legelari-aholkularia.*

*Ordezkoa: Kudeaketa Administratiboaren Arloko burua.*

*Hala ere, sustatzen diren lehia-elkarrizketako prozeduretan edo berrikuntzarako elkarketa-prozeduretan, kontratazio-organoei laguntza emateko, elkarrizketaren edo berrikuntzarako elkarketaren xede den gaian kualifikazio berezia duten pertsonak parte hartuko dute. Kontratazio-organismoak izendatuko ditu pertsona horiek. Pertsona horiek mahaia osatzen duten kide guztien herena edo gehiago izango dira, eta eztabaidetan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute."*

**Bigarrena**.- Erabaki hau GUFÉren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.»

Bilbon, 2018ko apirilaren 13an

GERENTEA

Sin.: Teresa Alba Zubizarreta